

PSOEren ustez epaiak argi uzten du GALen ekintzak ez zituela Gobernuak lagundu

Rafael Verak zigortutakoengatik kezka agertu zuen, absolbitua izan ostean


Agentziak / Madril

'Lasa-Zabala auziko' epaia jakin ostean PSOEk prentsa ohar baten bitartez jakinarazi zuen bere iritzia. Epaia ontzat hartzen duela azaldu zuen PSOEk ohar horretan, eta beraiek diotenez, argi geratu da PSOEren Gobernuak ez zuela laguntzarik eman indarkeriaren kontra legez kanpo aritzeko.

PSOE-REN Batzorde Politikoa indarkeriaren kontra legez kanpo aritzea erabat gaitzesen duela azaldu zuen kalera-tutako oharrean. «Gaitzesten dugu terrorismoaren kontra legez kanpo borrokatzea, eta gure begirunea agertu nahi diegu, biolentzia terrorista amaitzeko lana egin dutenei».

PSOE gobernuan zegoenean garbi jokatu zuela adierazten du epaiak alderdi horren arabera eta GALen ekintzekin ez zuela zerikusirik izan: «Epaia agerian uzten du legez kanpo terrorismoaren kontra egon ahal izan diren ekintzek ez zuten Gobernuaren laguntzarik izan».

Egun indarkeriaren arazoa bere horretan dela esanez jarraitzen du sozialisten oharra: «Gaur egun oraindik biolentzia terroristak elkarbitza libre eta baketsuaren kontra darrai, baina horrek ez du justifikatzen, eta ez du justifikatu inoiz haren kontra borrokatzeko Zuzenbide Estatuaren bortsatzen duten moduak erabiltzea».



TV / EFE

Rafael Vera Entzutegi Nazionalan deklaratu ari da 'Lasa-Zabala auzian'.

PSOE

■ ■ ■ «Oraindik biolentzia terroristak atentatuak egiten jarraitzen du, baina horrek ez du justifikatzen, eta ez du inoiz justifikatu haren kontra borrokatzeko Zuzenbide Estatuaren arauak bortxatzea»

Epaiarekin etapa baten amaiera datorrela iritzi dio. «Etaparen horretan hainbat sektore politiko eta mediatikoe-tatik justiziaren zeregina ins-

trumentalizatzen saiatu dira, alderdiaren interesen onerako, joko demokratikoaren arauak ere apurtuz».

Rafael Verak PSOEren

Gobernuaren garaian hainbat kargu izan zituen, tartean Segurtasunerako Estatu idazkaria izan zen. Lasa-Zabala auzian epaitu eta absolbitu egin dute Vera. Epaiaren berri izan ostean ez zuen adierazpenik egin nahi izan Verak eta ondokoa besterik ez zuen esan: «Kontua ez da nire absoluzioa edo Argoterena. Beste auzipetuek jaso dituzten zigorrak kezkatzen naute, eta beraz, ez dut ezer gehiago esan nahi honi buruz».

EHren aburuz, «epaiak erakusten du Estatuak ez duela bere burua epaitzen»

■ Alderdi horrek «zentzugabetzat» jo du talde armaturik ez zegoela esatea

Aitziber Iartza / Donostia

EUSKAL HERRITARROK taldea, Lasa eta Zabala auziko epaia baloratzerakoan, bat etorri zen hildako bi errefuxiatuen senideek esandakoarekin, eta ez daudela gustura adierazi dute.

Arnaldo Otegi EHko buruak esan zuenez, «ez du zentzurik talde armatua ez zela existitzen esateak». Otegik, epaileek hori azaltzeko erabilitako argudioa deitoratu zuen. «Taldea armatua izateko hierarkia behar dela eta kasu horretan ez dagoela diote, hierarkia kasu honetan Guardia Zibilarena dela diote. Gainera, argi dago Guardia Zibila talde armatu bat besterik ez dela eta ez du zentzurik».

Torturak ez zirela izan esatea ere larritzat jo zuen. «Horrek frogatzen du Estatu batek ez duela bere burua epaitzen. Joxi eta Joxean torturatu zituztela onartzea Guardia Zibilak torturatzen duela onartzea da. Torturen existentzia ezkutatu behar du, Espainia berbebratzeko estrategiaren tresna bat baita. Gerra tresna bat da eta moztaratu nahi dute», salatu zuen.

Epaiak gerra zikinaren ardura politikoa argitzeko oztopoak jartzen dituela ere salatu zuen Otegik.

Iñaki Anasagasti • EAJko

diputatu Kongresuan



«Epaia justizia egin die hildakoei»

►«Azkenean, Justizia mintzatu da. Epaietaren sententziak bi torturatu eta hildakoei justizia egin die. Gainera, honek guztiak irakatsi bat eman du: ETAK erabiltzen zituen tresna berdinak erabiliz eman nahi zitzaion amaiera erakunde armatuari. Azkenean, amaitu da epaiketa eta hor dago sententzia. Gure historiaren orri beldurgarriak dira, eta espero dut konklusioak ateratzea indarkeriari beste modu batez aurre egiteko».

Begoña Lasagabaster • EAKo

diputatu Kongresuan



«Erantzule gehiago geratu dira epaitu gabe»

►«Epaia sentsazio gazi-gozoz hartu dugu. Estatuako segurtasun indarren hainbat kide epaitu badira ere, ziur gaude oraindik erantzule gehiago geratzen direla epaitzeko. Ezin dugu frogatu, baina argi dugu Gobernuak ordezkari batek edo Guardia Zibileko kargu garrantzitsu batek ez dutela euren kabuz lan egiten. Kasuaren instrukzioa burutzeko estatuak jarritako oztopoak salatu nahi ditugu».

Francisco Frutos • IUko

bozeramailea



«Erantzukizun politikoak epaitu gabe geratu dira»

►«Kasuaren larritasuna ikusirik, epaia justua izan da, ekintzak frogatu direlako, baina aldi berean, partziala. Tamalgarria da erantzukizun politikoak epaitu gabe geratzea, kondenatuen gainetik erantzule politikoak zeuden eta. Argi dago talde armatua existitu zela. Hainbat pertsona bildu ziren hilketak egin asmoz, eta guzti hau ezin da egin erantzule politikorik izan gabe».

Josep Pique • Espainiako

Gobernuko eleduna



«Epaia errespetua adierazi nahi dugu»

►«Espainiako Gobernuak ez du Madrilgo Entzutegi Nazionalak Lasa-Zabala auziaren inguruan emandako sententzia baloratuko, antzeko kasu eta epaietan egin duen moduan. Errespetu osoa adierazi nahi diegu ebazpen judizialei eta sententziak emateko botere judizialari dagokion independentziari. Beraz, ez dugu balorazio gehiagorik egingo».